

Zakilen jatorria: desberdina narrastietan eta ugaztunetan, baina antzekoa

Zakilaren jatorri ebolutiboa azaldu dute Harvardeko Unibertsitateko genetika-riek. [Nature aldizkarian argitaratu dute ikerketa](#), eta, haren arabera, kanpogenitalen garapena ez da berdina ornodun lurta guztietan. Hain zuzen, ugaztun gehienetan, zakila garatzen duten zelulak isatsa sortzen duten zelula enbrionarioetatik eratortzen dira; sugeetan eta beste narrasti batzuetan, berriz, atzeko hankak sorrarazten dituztenetatik.

Oilaskoen enbrioiekin egindako esperimentuetan, ikertzaileek ondorioztatu dute kloakaren kokapena gako dela organoen garapenean, horren arabera



Pitoiaren enbrioia, sei egunekin lehen argazkian, eta 11 egunekin bigarrenagoan. Azken horretan, isatsaren espiralaren erdian nabaritzen dira sexu-organoen ernamuina eta hanken bestigioa. ARG.: PATRICK TSCHOPP/HARVARD UNIBERTSITATEKO GENETIKA SAILA.

garatzen baitira hesteak, sexu-organoak eta gernu-aparatua. Nonbait, enbrionifasean, kloakak bidaltzen ditu zelulak bideratzea eta ehun bat edo beste garatzea eragiten duten seinaleak. Ugaztunetan, kloaka isatsaren ernamui- netik gertu dago, eta, narrastietan,



berriz, atzeko hanken ernamui- netik hurbil.

Horrenbestez, frogatu dute elkarrekiko desberdinak diren zelula-populazioak gai direla kloakaren seinaleari erantzuteko eta sexu-organoak garatzeko. ●

SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA <



VII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

LANAK AURKEZTEKO EPEA

ZABALIK DA

2014KO IRAILAREN 30A BITARTEAN

Sarien helburua euskal soziolinguistika teoriko edota metodologikoaren garapena eta berrikuntza da. Era berean, euskararen inguruko soziolinguistika-arloko hausnarketa-lanak ere onartuko dira.

EDUKIAK

Euskal Soziolinguistikako lan teorikoak, teoriaren aplikaziokoak, ikerketa aplikatukoak edota saiakera-arlokoak izango dira.

Soziolinguistikaren arloari lotutakoak edo beste zientzia-arlo batzuetatik euskarara egokitutakoak (antropologiatik, historiatik, informatikatik, fisikatik e.a.).

Lanak aurretik argitaratu gabeak izango dira. Interneten argitaratutako lanak ez dira bere horretan onartuko, argitaratutzat hartuko baitira.

SARIAK

Lehenengo saria: 1.500 € eta Jose Luis Zumetaren litografia

Bigarrena saria: 1.000 €

Hirugarrena saria: 700 €

NORA BIDALI

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA > 943 592 556

kluster@soziolinguistika.org • hausnartuoziolinguistika.org

www.soziolinguistika.org/hausnartu